

FUNTSEZKO JARDUERAK

- 1.** Gure elkarte eta enpresaren funtsezko jarduera garrantzitsuena, kamiseta, jertse eta dena delako arropak ekoiztea da. Arropa pieza bakoitzerako diseinu ezberdinak sortu beharko ditugu, gure produktuak bezeroentzat erakargarriak izan daitezen. Gainera Produktuak ekoizteaz gain etxeetara entregatu beharko ditugu.
- 2.** Ekoizpena burutzeko tokiren bat alokatu beharko dugu eta beharrezkoak diren tresnak eta materialak erosi. Hasieran, arropa eta diseinu munduan esperientzia daukan pertsona edo elkarteren bat kontratatu beharko dugu arropa sortzeko eta gure diseinuak solidoan materializatzeko eta ikasten goazen ahala jarduera hauek gure kabuz egiten hasiko gara.
- 3.** Salmentarako eta bezeroekin komunikatzeko gure web orri propioa eta sare sozialak erabiliko ditugu. Guzti honek lan asko ekar dezake, beraz komenigarria da funtsezko jardueretan enpresaren webgunea eta online denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduerak sartzea.
- 4.** Horrez gain, momentu oro gure sare sozialak bizirik mantendu beharko ditugu hilero publikazio berriak jarriz eta enpresari buruzko berritasunak argitaratuz. Bestalde, Sareen bidez munduko gatazka eta arazo ezberdinei buruz jendea kontzientziatzen eta laguntza beharra duten pertsonak gaur egun bizitzen dituzten egoera desberdinak azaltzen saiatuko gara.
- 5.** Hasiera batean, ez dugu denda fisikorik jarriko beraz ez dugu presentzialki jende aurrean lanik egin beharko, dena online bidez izango da. Laburbilduz gure funtsezko jarduera nagusiak produktuen ekoizpena, garraioa eta web orriaren kudeaketa izango dira.